

MACAOKO HIZKUNTZEN AGONIA LUZEA

Josep SOLANO

Portugalek Txinan izan zuen kolonia ohian portugesearen oinarritik sortu zen makanera kreol hizkuntza galtzear da. Eta oraindik Macaon ofiziala den portugesa bera ere bide beretik doa. Makanera altxor bixia da, hizkuntza desberdinen mosaiko bat delako (kantonesa, zongalesa, japoniera, ingelesa...). Portugalek Asian utzi zuen aztarna linguistikoaren adibide garbia da, baina hitzunak desagertzen ari zaizkio eta ez dira berriak sortzen ari.

XIX. mendera arte, Macaon portugesen eta kantonesen arteko komunikaziorako hizkuntza garrantzitsua izan zen makanera edo Patua. Portugalgo hizkuntzan oinarria duen kreolea da makanera, eta gaur egun hamarnaka familia gutxitan hitz egiten da; beraz, «arrisku bizian» dago, UNESCOk ohartarazi duenez. Portugesak, Portugalgo kolonia ohian bizi direnen %3 pasatxok hitz egiten dutenak, Patuaren bide bera jarraitzen du.

Portugalek Asian utzi zuen aztarna linguistikoa XVI. eta XVII. mendeetan izan zuen izugarritzko itsas hedapenaren lekuko bizia da. Europa eta Ekialdearen arteko ezagutzaren bitartekari bezala, portugaldarrek Camoesen hizkuntza asiar kontinenteko eskualde zabalean zabaldu zuten: Indiako azpi-kontinentetik Japoniaraino, Ceilan,

Bengalako Badia, Persiako Golkoa, Siam, Timor eta Molukak ahaztu gabe. Lusitaniarren eragina nagusitasun politikotik, merkataritzatik eta, nola ez, erlijiosoen bidez hedatu zen, kolonizazio prozesu orotan gertatu ohi den bezala. Fenomeno horrek, eskualdeko kultura-paisaia eraldatzeaz gain, hizkuntzen arteko harremanetan ondorio iraunkorrak ezarri zituen.

Hain sakona izan zen portugesearen errotzea, non, intelektual lusitaniar batzuek dioten bezala, Asiako hegoaldeko merkataritza eta diplomaziaren *lingua franca* garrantzitsu bihurtu baitzen. Hizkuntza horrek tokiko herriak zorabiatu zituen, baina XVI. mendearen amaieratik aurrera Asian ezartzen hasi ziren potentzia europarren komunikazioa erraztu zuen, hala nola britainiarren, frantsesen, holandarren eta daniarren artekoa. Halere, noizbait Asiako portu eta merkataritza-gunee-tan jaun eta jabe izan zen hizkuntza-ondare hori amilduz doa, apurka-apurka baina etenik gabe. Hori nabarmena da Macao bezalako lekuetan.

HEDAPEN HANDIA IZAN ZUEN HIZKUNTZA

Antzinako Portugalgo administrazio kolonialean, makanera garatu egin zen, batez ere Patua bezala ezagutzen den eta portugesean oinarria duen kreole hizkuntza liluragarria. Beste izen batzuk ere baditu, hala nola Língu Nhonha, Papiâ Cristâm di Macau, Papiaçâm, Maquista edo Macaista. Oso berezia den hizkuntza hori, XVI. mendetik aurrera sortu zena, mosaiko linguistiko izugarri aberatsa da, portugesa kantonesarekin, malaysierarekin eta zingalesarekin nahasten dituelako besteak beste, eta, gainera, ingelesaren, thailandiarren, japonieraren eta Indiako hainbat hizkuntzen eraginak dituelako.

Macaon, makanera komunikazio hizkuntza garrantzitsua bihurtu zen, eta macaotar askok eta txinatar batzuek menperatu eta hitz egiten zuten, batez ere portugaldarren emazte txinatarrek. Ikasteko eta ahoskatzeko zuen berezko erraztasunak, txinatarren eraginaren ondorioz, hainbat talderentzat egiteko interesgarri bilakatu zuen. XIX. men-





dera arte, berebiziko garrantzia izan zuen macaotarren, txinatarren eta portugaldarren arteko komunikazioan, eta nabarmen lagundu zuen hiriaren garapen sozioekonomikoa sendotzen. Hala ere, bere gorenean ere, kreolera honen hiztunen kopurua nahiko ahula zen eta ez zituen hamarnaka mila hiztun gainditzen.

XIX. mende osoan zehar, macaotar askok hizkuntza berri hau erabiltzen jarraitu zuten, Portugalgo agintariak Macaon erabiltzen zuten portugesez estandarren aurkako jarrera erakutsiz, kreolerak estatus ofizialik ez zuen arren. Macaotar batzuek sortu berri zen Hong Kongeko kolonia britainiarrrera emigratu zuten eta makanera erabiltzeari eutsi zioten, nahiz eta garai haietan ere ingeles ahalguztiduna gailentzen hasia zen. Izan ere, orduan hasi zen eratzen ingelesaren mundu mailako nagusitasuna. Kreole hau Macao eta Hong Kongeko agintari politikoak burlaka kritikatzeko bitarteko hizkuntza bihurtu zen, hauen handiki kultural eta soziala begi bistan uzteko.

Jatorrian komunitatearen hizkuntza makanera zen, baina XX. mendean portugesez eskolatzeak izugarrizko kaltea egin zion, eta gaur egun adineko

pertsona bakan batzuk baino ez dira geratzen oraindik arintasunez hitz egiten dutenak. Gaur egun, 50 bat hiztun inguruk baino ez dute hitz egiten, ia museoko pieza bihurtuta. Ondare linguistiko eta kultural baliotsua da, baina oso hauskorra. Aida de Jesus, “Macaeseko sukaldaritzaren madrinha” bezala ezagutzen zena, 105 urterekin hil zen 2021eko martxoan, eta bere desagerpena kolpe oso esanguratsua izan zen portugaldar kreoleraren hiztunen komunitatearentzat.

HIZKUNTZARI EUSTEKO AHALEGINAK

Makaneraren gainbehera etengabe honetan, azken urteotan hainbat ekimen sortu dira hizkuntzaren galera nolabait

Jatorrian komunitatearen hizkuntza makanera bazen ere, XX. mendean portugesez eskolatzeak izugarrizko kaltea egin zion, eta gaur egun adineko pertsona bakan batzuek baino ez dute arintasunez hitz egiten

Macaoren errealtate demografiko linguistikoak egoera kritikoa erakusten du portugesearentzat ere: txineraz hitz egiten du biztanleriaren %95ak eta portugesa menderatzen du %3k. Zenbakiok garbi hitz egiten dute

Irudiotan, Macaon jasotako irudi desberdinak. Kaleko errotulu askotan bi hizkuntza agertzen diren arren, portugesak oso indar gutxi dauka gaur egun.

Josep SOLANO

geldiarazteko. San Joseko Unibertsitateak, hizkuntza-ondare hori babestearen garrantziaz jabeturik, master bat ireki zuen duela urte batzuk luso-hiztunen ikasketetan, hiltzorian den hizkuntza bizirik mantentzeko helburuarekin. Makanerarekiko interesa ez da Macaoko komunitatera mugatzen; harriarria bada ere, unibertsitate berak hizkuntza horri buruz eman zuen ikastaro batek 22 ikasle erakarri zituen, horietako asko txinatar komunitatekoak, kreole bakar honekiko ustekabeko kulturarteko interesa erakutsiz.

Gaur egun, makaneraren kontserbaziorako gotorleku nagusia Doci Papiçam di Macau antzerki taldea da. Talde hori Miguel de Senna Fernandes abokatuak zuzentzen du, eta urtero antzerki-lan bat antzezten du, batez ere makanera kreole hizkuntzan, eta nabarmen laguntzen du hizkuntza hori zaintzen eta hedatzen. Bere antzezpeneak, kultura-ekitaldi garrantzitsu bihurtu direnek, entretenitu ez ezik, publikoa makaneraren hizkuntzan eta kultura-aberastasunean hezten dute. Gainera, badira beste ekimen kultural batzuk kreole hori babestu eta sustatu nahi dutenak. Literatura eta musika lanak argitaratu



dira makanera, “Diccionario Portugués-Patua” barne, 2001ean.

Oinarritzko Legearen 9. artikulua arabera, portugesak estatus ofiziala du. «Txineraz gain, portugesa Macaoko Administrazio Eskualde Berezikoko organo betearazle, legegile eta judiziale-tan ere erabil daiteke, eta portugesa ere hizkuntza ofiziala da». Macaon hizkuntza ofiziala den arren –2049ra arte, gutxienez–, portugesa ere oso egoera ahulean dago kantonesaren, mandarinaren eta ingelesaren aurrean, nahiz azken hau hizkuntza ofiziala ez izan. Eguneroko bizitzan eta eremu administrazioetan portugésaren erabilera murrizteak zalantzak sortzen ditu hizkuntza horrek eskualdean izango duen etorkizunari buruz; Portugalgo kolonia zaharrenean duen presentzia eta bizitasuna babesteko egungo hizkuntza-politikek duten eraginkortasunari buruz batez ere.

Portugésaren ofizialtasunak Macaon funtzionario publiko izateko hautagaiek portugesa menderatzea exijitzen duen arren, eta Macaon funtzionario publiko izateak lan eta ordainsari baldintza erakargarriak eskaintzen baditu ere, herri mailan (kaleetako errotuluez gain) oso arraroa da portugesa Portu-

galgo kolonia ohian ustekabeen paseatzen entzutea. Herrialde lusofonoetan txinatarrek egin dituzten inbertsioek portugesez hitz egiten duten txinatar profesional asko ikastera bultzatu izan dituzte. Hala ere, hizkuntza zaintzeko ahalegin ofizialak egin arren, eguneroko erabilera gutxitzen ari da.

Macaoren errealtate demografiko linguistikoak egoera kritikoa erakusten du portugésarentzat ere: txineraz hitz egiten duen biztanleriaren %95ak eta portugesa menderatzen duen %3k, erabat testimoniala, hizkuntza gizartean desagertzeko zorian dagoela erakusten dute. Estatistika horrek, portugesak lurraldean duen marjinaltasuna agerian uzteaz gain, aurreratzen duen eszenatokia, hamarkada gutxiren buruan hizkuntza aztarna historiko huts batera murriztu daitekeela ulertzen da; dokumentu ofizialetara, errotulu batzuetara eta funtzionario eta akademiko gutxi batzuen memoriara.

ZALANTZAZKO ETORKIZUNA

Nahiz eta estatus ofiziala izan eta gobernuak bizirik mantentzeko ahaleginak egin, errealtate demografikoak eta sozialak eguneroko erabileran pixkanaka desagertzera darama. Ma-



Garai bateko aberastasun linguistikorik ez da geratzen Macaon gaur egunean, eta etorkizun hurbilean ez da espero berpizterik.
Josep SOLANO

caon portugésaren kontserbazioa hizkuntza kontu batetik haratago doa; erronka bat da eskualdeko identitate historiko eta kulturalaren funtsezko zati bat bizirik mantentzeko. Hala ere, txineraren presentzia ikaragarriaren eta ingelesaren eragin gero eta handiagoaren aurrean, Macaon portugaldarraren etorkizunak zalantzarazkoa dirudi. Neurri kementsuagoak eta kreatiboagoak beharko dira, hizkuntza hau, eskualdeko *lingua franca* zena, Macaoren iragan kolonialaren erlikia soil bat bihurtzea saihestu nahi bada.